

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LEGUTIOKO UDALA

Landa finkaren errentamendua

Alkatetza honen 2019ko apirilaren 3ko 190403A Ebazpenarekin bat etorriz, iragarki honen bidez dei egiten da ondoko landa finka hau errentan emateko lizitaziorako:

1. Erakunde esleitzaila: Legutioko Udala.
2. Lizitazaileen baldintza berezia: Arabako Nekazaritzako edo Abeltzaintzako Ustiategien Erregistroan inskribatuta egotea.
3. Kontratuaren xedea: Legutioko 1 poligonoko 1192 lurzatiaren (dermio: Chopera) errentamendua. Katastro azalera: 15.585,06 metro koadro.
4. Erabilera: nekazaritza edo abeltzaintza.
5. Zenbatekoa: 272,87 euro urtean. KPlaren arabera eguneratuko da urtero.
6. Epea: 4 urte. ez dago luzapenik.
7. Izapidea eta prozedura: izapidetze arrunta, prozedura irekia, eta esleitzeko irizpide bakarra, eskaintza ekonomikorik onena.
8. Bermeak: behin betikoa: ehuneko 5.
9. Informazioa eskuratzea: Legutioko Udalaren bulegoetan, astelehenetik ostiralera, 08:00etatik 15:00etara, eskaintzak aurkezteko epean, eta kontratatzailearen profilean (www.legutio.eus).
10. Eskaintzak aurkeztea: 15 egun natural, iragarki hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, bai telematikoki, bai bertatik bertara edo posta ziurtatu bidez.
11. Gastuak: kontratua formalizatzeko eragindako gastu guztiak esleipendunak ordainduko ditu; bai eta iragarki hau argitaratzeko eragindakoak ere.

Legutio, 2019ko apirilaren 9a

Alkatea

NEKANE GARAIGORDOBIL BENGOA